

1979-II-23

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979.eko Otsailaren 23an, arratsaldeko lauetan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Laffite, E. Larre, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J.L. Alvarez Enparantza, F. Arregi, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J.M. Etxaburu, X. Garmendia, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J. Oregi, P. Uribarren, A. Zatarain eta J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak; J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI:*

Euskararen gaurko egoerari buruz egindako azterketa laster argitaratzeko dela jakinarazi du SIADECO-k. Laburpena Martin Ugalde jaunak egin du. 20.000 ale aterako dira.

Uda aldean egitekoa zen Euskalarien Aurkiketa oraikotz atzeratzea erabaki da. Horren ordez, Seber Altube zenaren mendeurrenari hasiera emateko, Euskaltzaindiak Abuztuko batzar irekia, hilaren 27an, Gernikan egingen du.

Euskaltzainburuak, Mitxelena jaunaren laguntzaz egindako proposamen bat ekarri du, "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak" izenekoa, Bergaran aipaturiko puntuari hedadura emanez. Hilabete baten epea uzten da oharrak egiteko.

P. Altunak, Erakusleen batzordeak egindako proposamena irakurri du, eta euskaltzain osoek orokorki ontzat eman dute, ohar batzu eginez. Puntu bi gelditu dira, beste alde, geroago berrikusteko: 1) *Hauk, hauek*, nominatibo eta ergatiboa bereizteko, biak ontzat eman behar diren ala bat. 2) *-tatic -tarik*, geroago deklinabideko batzordeak aztertzeke utzi da.

b) *DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA:*

“Andima Ibinagabeitia” sarirako lanen epea irekirik gelditu da, aurtengo tesina edo saio lana literatur alorrekoa izanik.

A. Irigoyen eta J.A. Aranak “AZKUE Bibliotekan” egindako lanen berri eman dute, eta eskuratutako liburu guztien zerrenda dakarte.

J.L. Lizundiak “Udalen izendegia” datorren hilabeterako atera ahal izango dela jakinarazten du, lau Aurrezki Kutxa Munizipalek babesturik 100.000 ale argitaratuko dira.

A. Zavalak, bertsolari batzordearen berri ematen du. Bertsolarien iritziak entzunik, zaila ikusten da oraikotz txapelketa egitea.

d) *TXOSTENAK:*

J.M. Satrustegik, “Aizkibel euskara batuaren aintzindari” izeneko txostena irakurri du, euskaltzale honen esku-izkribu bat Tolosan agertu dela aditzera emanez.

J. Oregik “Itzulpen batzuei buruz” kezka agertu ditu bere txostenean. Eztabaida sortu da eta Euskaltzaindiak ikusiko du.

Madrilen elebitasunaren legezapena atzeratzeak sortzen duen kezka larria agertu dute batzarkideek, eta salaketa egin beharrean aurkitzen da Euskaltzaindia.

*Euskaltzainburua*

Luis Villasante

*Idazkaria*

Jose Maria Satrustegi